



(Eus)

**BAI, ZUK!**

**RIO DE OROK OPORRAK BAKEAN KANPAINARI HASIERA EMAN DIO.**

Bai, zuk!

Zuk badakizu zer den ume izatea eta zer izan daitekeen Tindufeko Errefuxiatuen Kanpamenduetan bizitzea. Udan 50 gradutik gorako tenperaturez kiskalita egotea zer den irudika dezakezu eta ezin alde batera utzi, basamortuko elikagai gabeziak haien osasunean eragiten dituen arazoak.

Udako planak egiten ditugunean eguzkia, hondartza, lagunak, bidaiak, familia eta beste hainbat gauza polit izan ohi ditugu gogoan. Irudika dezakezu zure burua guzti hori beste kultura bateko ume batekin konpartitzen? Durangaldean posible da guzti hori betetzea eta uda ume saharar batekin elkarbanatzea.

Pentsatu ohi da horrelako esperientziek esfortzu ekonomiko esanguratsua eskatzen dutela. Pentsa dezagun ordea, krisiak ez duela dena pikutara bidali eta esaera zaharrak dioen moduan hiruk jaten duten lekuan lauk ere jan dezaketela. Gu, Rio de Oro, gastu esanguratsuenen erantzule izango gara.

Prest zaude uda honetan haur saharar bat zurean hartzeko? Informatu, ez duzu ezer galduko. Jar zaitetz kontaktuan gurekin eta pozarren lagunduko dizugu zure jakin-mina asetzen. Hurbildu zaitetz martxoaren 16an, 18:00etan Pinondo Etxean (Durango) eskainiko dugun hitzaldira.

Besarkada handi bat,

Rio de Oro.

[www.riodeorodurango.com](http://www.riodeorodurango.com)

Tel: 676108794

**IZENA EMATEKO EPEA MARTXOAREN 31RA ARTE ZABALIK.**